



San Andres
eskola Berrobi
telefonoa: 943 34 32 14
e-mail: 01032oa@hezkuntza.net

ARLOA

ETAPA
HH

MAILA
4-5 urte

AZKEN
XEDEA

JOLASTUZ JATETXEKO PERTSONAI DESBERDINEN
PAPERAK EZAGUTZEA.

HELBURUAK

Pertsonai bakoitzaren eginkizunetaz jabetzea: zerbitzatu, mahai,
janaria prestatu, kobratu, ordaindu, menua prestatu.....

E
D
U
K
I
N
A
K

KONTZEPTUAK

Menua
Dirua
Janariak, edariak.
Tresnak.
Jantziak.
Kantitatea eta zifra.

PROZEDURAK

Janariak, jantziak, tresnak, sailkatu.
Menuak antolatu: 1go platera, 2. eta postrea. Eta idatzi.
Prezio jarri eta dirua erabili.
Jantzi- erantzi.

JARRERAK

Parte hartu eta jolasteko interesa.
Txoko honi dagokion materialaren erabilera egokia..
Ahots tonu egokiaren erabilera.

DENBORALIZAZIOA

Hiru hilabete

EBALUAKETA
ERIZPIDEAK

Sailkapena ondo egin duen ikusi.
Menu egokia prestatu duten.
Kantitatea eta zifraren erlazioa (dirua erabiliz) ondo egiten duten.

EKINTZAK

1- Jatetxea jartzeko behar diren tresna eta gauzak zerrendatu arbelean. Prestatu, erosi edo etxetik ekarri.

Janariak / edariak

Mantela

Platera, kubierto, edalontziak.

Bandeja.

Sukaldari eta zerbitzariaren jantziak.

Dirua/ kaxa

Koadernoak/ boligrafoak.

Mozorrotzeko jantziak.....

2- Jatetxeari izena jarri. Denon artean adostuko dugu.

Menuaren prezioa jarri.

3- Sukaldariaren eginkizuna azaldu, adostu: mahaia prestatu, janaria jarri eta sukaldea txukundu.

4- Zerbitzariaren eginkizuna azaldu, adostu. Mahaia prestatu, menua erakutsi eta apuntatu, kobratu eta mahaia jaso.

5- Berrobiko jatetxea bisitatu. Mertxe zerbitzariari elkarrizketa egin, aurrez prestatutako galderak eginez.

6- Menuen fitxeroa egin: 1go platera, 2. eta postrea.

7- Asteko menua idatzi: txandaka, binaka, asteko menua pentsatuko dute eta ordenagailuan idatziko dute.

8- Jatetxeko pertsonai bakoitzak dagokion jantzia jantzi behar du: sukaldariak, alkandora eta txapela; zerbitzariak, mantala eta bezeroek, arropa dotorea.

9- Bezeroak, jatetxera joan aurretik, dirua prestatu behar du. Lehenengo asteetan, 5€ menua fijoak izango da, gero janari bakoitzari prezio bat jarriko diogu eta zenbat ordaindu behar dugun kalkulatu egin beharko dira.

10- Asteko menua eta jasotako diru kopurua koadro batean idatzi eta konparaketak egin, ordenatu, handiena, txikiena...

11- Blog-an eta Web orrian idatzi.